



Ekipoa	Lohien lehortze elektrikoa, ekoizpen txikietarako
Kodea	C-3004
Ingurumen-hobekuntza	Lohien bolumena (kudeatu beharreko hondakina) txikiagotzen du, eta lohien hezetasuna murrizten du.
Honetan datza:	<p>Lohien lehorgailu elektrikoa erabil daiteke edozein lohi motatako kopurutxikiak prozesatzeko, eta, bereziki, lohi bereziak, toxikoak edo arriskutsuak tratatzeko.</p> <p>Prentsa-iragazki batetik datozen lohiak ontzi birakari batean sartzen dira. Biraketen ondorioz, lohiak nahasten dira eta gehiago lehortzen dira. Lehortze-prozesua zirkuitu erabat itxian egiten da, atmosferara gasik igorri gabe. Horrenbestez, unitate hori lokal itxi eta kontrolatuetan erabil daiteke.</p> <p>Lehortze-ziklo osoa tenperatura baxuan gauzatzen da (50 °C inguru) eta oso energia gutxi behar da. TE lehorgailu birakaria mota eteneko unitate bat da (sailka lehortzen du) eta ziklo bakoitzean 500–7.000 litro lohi lehor ditzake. Ur-edia % 5era murriz daiteke, eta ateratako litro bakoitzeko 0,35 kW behar ditu.</p> <p>Lehortze-ziklo bakoitzaren iraupena da unitatean sartutako lohien hezetasun-portzentajearen arabera, eta amaieran lortu nahi den hezetasun-portzentajearen arabera. Lehortze-zikloa automatikoa da, eta lohi mota bakoitzaren ezaugarrien arabera egokitu daiteke.</p> <p>Honako hauek dira ezinbesteko osagaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lohien lehorgailu elektrikoa, kantitate txikietarako.
Zein sektoretan aplikatu daitekeen	<p>Teknologia hori aplika daiteke lohi gutxi sortzen den edozein instalaziotan, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hondakin-urak tratatzeko industria (NACE 37). - Elikagaien industria (NACE 10). - Metalurgia (NACE 24). - Metalaren industria (NACE 25). - Metalen tratamendua eta estaldura (NACE 25.6).